


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

255n. zenbakia
urrilla 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



BILBAO ETA ARRUZA'TAR JON ERRAMON

- 2000-09-21'EAN JOAN JAKU
- EUSKALERRIAN, AMERIKETAN, PORTUGAL'EN, ITALIA'N ETA MADRID'EN LANGILLE ZURRA
- AZKENENGO OGEI URTEETAN "EUSKERAZALEAK ALKARTEA" N DIRUZAIN ETA LANKIDE ARDURATUA
- BETI EUSKALZALE BIZI-BIZIA
- IZAN BEGI GOIAN JAUNAREN SARIA

BEGOÑA (III): LOIOLA'KO IÑAKI DEUNA

Eleiza barriaren eregintza aurrera joiala, santutasunagaitik eta eleiz-ardureagaitik ospetsuak ziranak jarri ziran Begoña'gaz artu-emonetan. Labur baiño ez ba'da be, gogoratu daiguzan: Loiola'ko Iñaki Santua, Borja'ko Frantzisko santua eta Kalagurri'ko Gotzain zan Luko'ko Juan Bernal Diaz dira.

Erdi-Aroa amaitu-barria zan eta munduko egoerea ez ain ona. Bizkai'tarrak erlejiño-zaleak zirala ezin ukatu, naikoa da zenbat eleiza egiten ziarduen gogoratzea. Baiña emengo erlejiño-zaleak bere gaisoa eukan eta osagille baten bear-izana be bai: Eleizako araubidea ez zan onena, abadeen bizitza ez zan beti erudugarria, erria lar ezjakiña zan arlo onetan. Arazo astunak ziran eta aldi barri bat asi bear zan une aretan urtenbidea emon bear jaken.

1.545n. urtean, orrillaren 25n. egunean artu eban Gotzain-ardura Kalagurri'ko Gotzain onek eta bere ardura-pean eukan Bizkaia. Gotzain txalogarria izan zan Kalagurri'koen artean, Trento'ko Batzar Nagusianberba egin eban, euskeraz be bai, eta gure fede-bizitzaren edestian urrezko izkiakaz idatzi-bearrekoa da bere izena. Euskalduna zan jatorriz, ondo ulertzen ebazan lurralde onen bear-izanak eta arduraz lagundu eutson erri oneri. Orregaitik goratu eban Borja'ko Frantzisko Deunak. Lenengo urte batzuk Gasteiz'en igaro ebazan inguruan euskaldunak ebazala eta Gotzain-barri zala sendotza emon eban Luko bere aurretiko-errian. Gero Bizkai'ko agintariakaz berbatu ondoren, artzain-ikustaldia egin eban Bizkai'ra, antxiñatik bete barik egoan Gotzain-zerregiña beteteko. Gotzaiñak Bizkai'ra sartzea galazota ei eukan, bear ba'da amarrenen arazoagaitik. Orregaitik lenengo berba egin bear izan eban emengo agintariakaz. Urrengo urtean sinodoa egin eban Gasteiz'en.

Eleizbarrutia ondo zaintzeko laguntzaille onak billatu ebazan, batez euskera ekienak eta orretarako jaio barria zan josulagunen lagundira jo eban. Gotzaintza artu baiño lenago be berba egin eban aita Araoz'egaz eta Fabro aita zoriondunagaz eta Iñaki Deunari berari be eskutitza egin eutson, euskeraz egiten dan toki areitan bear-izan aundiak dagozala eta etorri leitekezan josulanari laguntzeko gertu egoala esanez. Iñaki bera be euskalduna zala gogoratzen dautso.

Iñaki Deunak ezin emon izan eutson baietzik, oraindiño gitxi ziralako, baiña gauzea ez zan geratu aiztuta. 1.550n. urtean eskiñi eban lenengo laguntza eta urrengo urtean barriro egiten dau eskaria Gotzaiñak, bear-izan aundia eta euskaldunen bear-izana egoala gogoratuz. Loiola'tarrak Borja'ko Frantzisko ta Araoz aita bialtzea erabagi eban. Une onetan agertzen da Begoña'ko Santutegia, Gotzaiñaren ustez Bilbao'n eta Bizkai osoan apostulu-lana egiteko toki egoki lez eta Jesus'en Lagundiaren eskuetan iztea erabagi eban Gotzaiñak.

Bilbao'k garrantzi aundia eukan Gotzain onentzat: Uri nagusia da, Bizkai guztiak eukan onen bear-izana, emen egiten ziran salerosketarik aundienak, okerreko sinistea eukena be emen agertzen ziran arriskugarri, Aide Nagusien arteko burrukak samingarriak ziran. Arduraz jokatu bear zan ba, eleiz-zaintzaillea edo patronoa nor izango zan eztabaidatzen zan aldi onetan.

Luko Gotzaiñak eskutitza egin eutson V Karlos erregeari eta beste gizaundi batzui. Azkenean Loiola'tarrak jokabide batzuk eskiñi eutsozan Biena'n egoan aita Jai'o'ri, Erregea be an egoan-eta. Nor dan ez dakigun Kardinal bat be sartu zan bitarteko.

Bide onetik joiazan gauzak baiña Errege-Etxekoa zan Gamiz'ko Alonso'ren eskutitz batek gelditu eban dana: Eskutitza egin eutson Luko gotzaiñari, onek Loiola'ko Iñaki'ri bialdu eutson eskutitz ori eta onek Borja'ko Frantzisko'ri. 1.552n. urtean Bilbao'ra etorri zan santu au eta Solis aita bere lagunak auxe diñosku: "Begoña'ko Andra Maria'rena, oneraspen aundiko eleizea da baiña uritik urrin dago eta eleiza onen zaintza eztabaidatua da Begoña'ko Gregorio'k zaintzaille izan nai daualako, eta beste zio batzukaitik, ez dala egokia uste izan zan".

Orrelan amaitu zan pozezkoa eta itxaropenezkoa zan arazo ori. Ez dakit geroago ala lenago, Loiola'ko Iñaki deunak Bermeo'n etxe bat sortzeko eskutitza be egin eban erri aretara. An be azkenean ezetza artu eban. Olakoetan beti gauzea ona dala ikusten da eta ez da egiten, beste norberekeri batzuk bitartean sartzen diralako.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A I T E

2000-2001 IKASTURTEA

OGEI TA AMAIRUGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 20.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 9AN

33.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MANANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 20.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 9 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

LENENGO IDAZ-LANAK

1851n. urtean, ogeita amar urtekoa zala, argitaratu eban "El Campeador" lenengo elebarria eta urte beratan idazleen artera sartuko eban eta "El libro de los cantares" deritxon lenengo olerki-liburua. Aldi orretan Madrid'eko udal-etxean lana emon eutsoen eta izparringietan idazten asi zan, Gasteiz'ko "Revista vascongada"n eta beste ainbat aldizkaritan. Giro au be ez zan bere euskal-zaletasuna indartzeko ain ona.

OSPETSUEN ARTEAN

1859n. urtean ezkondu zan berrogei urteko mutil zarra zala Teresa Pardo'gaz.

Urte onetan, dagonillean, biurtu zan lenengoz Euskalerrira, ezkonduak oi daben ibillaldia egiteko, baiña aldi labur baterako izan zan eta urrillean barriro joan zan Madrid'era udaletxeko lana eta izparringietako idaz-lanak egiten jarraitzeko. Ordurako idazle espainatar askoren lagun egin zan, esaterako Fernan Caballero, Alarcon, Larra, Hartzenbuch, Zorrilla... Oraindiño euskal-arlorra sartu barik jarraitzen dau, giroak orretara beartu ebalako, baiña barruan eroian erri-miña.

BIZKAIA'REN ESKINTZA

1862n. urteak garrantzi aundia dauka bere bizitzan. Berrogeta iru une bete ebazan urtea zan.

Bizkaitarrak konturatu ziran balio aundiko errikide bat eukela Madrid'en eta ona izango litzakela gizon aundi ori Bizkai'ra ekarte. Arazoa ez zan garrantzi-bakoa eta Gernika'ko batzarrean aztertu eben. Ondoren lez, gure Anton'eri eskintza bat egin eutsoen, zeatzago esateko, Aldundian lantoki bat eskiñi eutsoen, edeslari edo kronista eta agiri-zain edo artxibalarri-lana.

Pozik artu eban Anton'ek eskintza ori, bere biotzak Bizkaia'ra etortea eskatzen eutsolako. Bere lagun ospetsuakaz be aztertu eben arazoa. Lagunak. Hartzenbuch buru zala, ez etorteko esan eutsoan etortekotan Madrid'en euken ospea ta lana galduko ebalako.

Zer egingo ete dau Anton'ek? Eskintza onartu egin eban. Bilbao'tarrak ekin eta ekin eukazan-eta.

BILBAO'N LANEAN

Ez zan gure Anton agiri-artean bizi izateko gizona eta Aldundiaren elburua be irabazbide apal bat eskintzea izan zan. Liste osoa eukan Trueba'k gauza askotan lagunduko eutsala Bizkaia'ri. Eta orrelan izan zan.

Lenengo ta bein, idazteko eukan erreztasuna, trebetasuna, Bizkaia'ren alde erabilli eban. Izparlari lez, Madrid'ekoa osoan itzi barik emengoa egiten asi zan. Bauekan zeregiñik naikoa karlostarren bigarren gudea egozten egoan aldi aretan gure bakezale aundiak.

II Isabel erregeiña ona etorri zanean, 1865n. urtean, berak lagundu eutsan Bizkaia ikertzen eta ibillaldi orren barriak be berak idatzi ebazan. Paris'en egin zan Erakusketan Nagusiko Batzar Nagusira idatzi eban eta lan aundi bat bialdu. Gaia: "Bizkai'ko Gizarte Erakundearen Agerpen

Laburra". Guztiz onartua ta aintzatu izan zan agiri ori eta laterri batzuk eratzeko eredu lez be artu zan.

XII Alfonso erregearentzat idazki bat gertatu eban. Aldundiak eskatuta, foruak kentzeko eginda egoan legea onartu ez egian, Mirla erregeak ez eutson jaramonik egin eta foruak kendu egin ziran. Orduan asarretu zan oso-osoa erregearen sendiagaz eta arrezkero Isabel'ek egin eutsozan deiari ezetza erantzun eutsen.

Bizkaia'n batez be, eta Araba ta Gipuzko'n be bai, erri-rik erri ibilli zan, bere idazkietan sarritan agertzen dan lez.

NEKEAK

Bere eguneroko nekerik aundiena aginpidea ganorabakoen eskuetan ikustea zan. Bera ez zan sartzen alderdi politikuetara, baiña bein karlostar batek eta beste bein liberal batek emon-alak emon eutsoezan.

Azkenean, 1870n. urtean sortu zan bigarren gudea eta Anton'eri aldundiko lan-lekua kendu egin eutsoen. Berak izparlari-lanean jarraitu eban.

Gudaren ondoren lez, barriro Madrid'era joan bear izan eban, baiña oraingo onetan ez dendako saltzaille lez, idazle ospetsu lez baiña. Guda amaitu zanean, 1876n. urtean barriro etorri zan bere Bilbao'ra eta lengo lan-lekua eskatzeko eskubidea euki arren, ez eban eskatu epaitegian, baiña barriro be emon eutsoen edeslari eta agirizain-lana. Izparringietan asko idazten eban.

AMERIKETATIK OMENA

Euskalerrria gogoratuz idatzi ebazan liburuak asko zabaldu ziran eta Ameriketara egozan euskaldunak be pozik irakurten ebezan, batez be Argentina, Uruguay eta Paraguay'ko euskal-etxeetan. Ango euskaldunak alkartuta ornelaldi bat egiteko dirua batu eben eta Bilbao'n bizileku on bat eskiñi eutsoen, baiña olerkaria gaisotu egin zan eta ezin bete izan zan gurari ori.

BESTE ASMO BATZUK

Bizkaia'ren edestia idazteko asmoa erabillen gure Anton'ek, baiña ezin bete izan eban. Beste asmo bat Bizkai'ko erri-izen guztien adierazpena erderaz be agertzea izan zan eta orretarako erririk erri ibilli eta ondorena "El Noticiero Bilbaino"n agertu zan. Orretarako billaketa lana egiteko euskerea erabilli eban.

GAISO-ALDIA TA ERIOTZA

Urteakaz eldu jakon bere gaiso-aldia eta osasunaren billa ugutz-etxe edo balnearioetara joaten zan, bear ba'da Zestoa'ra edo Urberuaga'ra, baiña ez eban aurrerapen aundirik egin.

Iru illebate ogean egin-ondoren il zan umore ona ta alaitasuna iñoz galdu barik.

II baiña illebate ta erdi lenago eleizakoak eskatu ebazan, naizta osagilleak itzi nai ez. 1889n. urteko epaillaren 10'ean il zan, irurogeta amar urtekoa zala.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

TRUEBA' TAR ANTONIO



Sopuerta'n, Trueba bici izan zan etxe (Santa Gadea) eta Aldundiak ezarritako

BAZTERTUA?

Idazle batzuk, onak izan arren, baztertutak izaten dira, ez dabe Iortzen izen aundirik elertiaren esparru zabalean, ez dira eltzen Parnaso-Mendiko jainko aundien maillara.

Sarritan beintzat katolikuak izan, katoliku lez idatzi eta katoliku lez bizi izan diralako izaten da. Orrez gaiñera gizarte-jokabidean eskoitarrak be izan dira, baiña gure azterlariak gauzak ondo bereiztu bear leukeez: katolikua izan naiz ez izan, eskoitarra naiz ezkertarra izan, ondo idatzia ondo idatzita dagoala esan bear da.

Ona emen adibide batzuk: Martzeliño Menendez y Pelayo'k oso ondo idazten eban, edestilari eta jakitun zeatza zan, eta bere izena oso gitxi entzuten da. Jose Maria Peman bere denporako idazleen artean punterengoa da, olerkari eta antzerkigille oso ona be bai, eta ez da bear dan lez goratuta ikusten. Bere izena gitxi entzuten da.

Olako zerbait jazo jako gure Trueba'tar Antonio'ri, Albia baratzean Benlliure'k egindako irudi ederra daukan gure olerkariari. Bere aldiko idazle erdeldunen artean gorengo maillakoa da, baiña aztertzaileak ukatu egiten dautsoe mailla ori. Zergaitik? Katolikua izan eta katoliku lez agertzen dalako eta politika-jokoan alderdi batera be makurtu ez zalako, bai, ostera, Euskalerrriaren maitale ta laguntzaile sutsua. Eta zer diño? "Gozotxea" dala, negartia dala, ameslaria dala eta errealisten eta erromantikuen bitarte aretan ez daukala sendotasunik.

EUSKAL ARLOAN?

Benetako euskal zalea dogu Trueba, abertzaletasuna sortu barik egoan aldi aretan benetako foru-zalea. Egia da

bere idazki guztiak erderaz idatzi ebazala, egia da bere etxean ez ebala euskerea xurgatu. Ez eban beste askok izan dogun zorion ori izan. Baiña euskerea ikasten alegindu zan eta berba egiteko bestean ikasi be bai. Orretan ez da errudun.

Bere ipuiñak euskeratuta argitaratu dauz Otazua ta Asua'tar Benito adiskideak eta eskerrak beroneri emonbearrean gagoz.

ERRI-GIROA

Enkarterriko Montellano'n, 1819n. urteko gabon egunean jai() zan. Bere aita Trueba'tar Manuel eta bere ama Kintana'tar Marta. Jalo eta ille batzuk barruan Sopuerta'ra eroan eban, bere aitaren en-ira. Erri onetako eskolan irakurten, ugarrez beteriko ikas-toki baten ikasi eban. Ez eban izan ba, umetatik beintzat, idazleen mundura sartzeko aukera aundirik.

Manuel bere osabeari "El Vasco" esaten eutsoen, bertsolaria zalako, baiña bertsolaria euskerazko doñuakaz eta erderaz. Pepa bere lengusiña trikitilaria zan.

GUDA DALA-TA MADRID'ERA

Anton amabost urrekoa zala sortu zan karlostarren lengo gudea eta etxeoen bildurrak eraginda Madrid'era joan bear izan eban, bere osaba batek eukan burdin-denda baten saltzaile lez lan egiteko. Barriro be ez dauka jakitunen bidera sartzeko aukerarik. Dana dala, berak bitarteetan zerbait ikasi egiten eban eta asko irakurri. Amar urte iraun eban biziera onetan.

AUZOET'AKO KOFRADIAK

ZER DIRAN

Euskalerrian garrantzi handia izan dabe kofradiak eta, zori txarrez, erri-erakunde onein edestia egin barik edo idatzi barik dago. Ba-dauko or eremu zabal bat bere maisu-lan txikia naiz handia egiteko edesti-ikasle dan batek.

Kofradia ez da besterik auzo baten bizi diran sendien alkartea baiño. gero, idazlan onetan jakingarriak agertu ondoren, ikusiko dau irakurleak argiago zer dan anaidia edo kofradia, baiña oraingoz naikoa izan bedi nortasun ori: Auzo baten bizi diran sendien alkartea.

Ez dira oraintsuko gauzak, bear ba' da aspaldion iltera doazen antxiñako erakundeak dirala esango geunke ziurtasun aundiagoaz, baiña ori be gero agertuko da. Oraingoz naikoa izan bedi esatea millagarren urtea ezkeru edo lenago sortzen joan dirala gure anaidiak edo kofradiak.

Kofradiai buruz zerbait ikasi nai dauanari ona emen nik emongo neuskiozan bideak: Lenengo, jabetasunaren zerrendak edo "Registros de Propiedad". Gernika'n ezin izango da jakingarririk aurkitu, emengo zerrendea gudaldian erre egin zalako. Orain kodradien agiriak banakakoen etxeetan egongo dira baiña banakakoak ez dabez emon edo erakutsi nai izaten. Durango'ko Jabe-Zerrendan, osteru, bai aurkitu daitekez agiriak. Orretarako asierea gaurko "kortabasoan" jabeak dira eta ikusi gero jabetasun ori nondik etorri dan, ariari jarraitu. Gaiñera kofradi bakoitxak bere liburuak daukaz. Batzuk erre egin dabez, esaterako Mungia n Atxurikoak, beste batzuk fogeradunen eskuetan dagoz, esaterako Zeanuri'ko Orue kofradikoak, beste batzuk, asko, Eleizbarrutiko Agiritegian dagoz, esaterako Alzusta koa eta Ipiñaburukoa Zeanuri'tik. Or jakingari asko dagoz. Alzusta'koa eta Ipiñaburukoa Zeanuri'tik. Or jakingari asko dagoz. Alzusta'koak atzekoaldean daukaz kofradiaren kontuak eta aurreko aldean baseleizearenak, ermitearenak, baiña kofradiarenak urratuta dagoz. Zergaitik liburuak urratu edo erre egiten diran jakin nai ba' dozu, irakurle, nire eritxia auxa da: Jabetasunaren arazoak agertzen diralako. Dana ulertuko dozu obeto idaz-lan au irakurten ba' dozu.

Kofradia edo anaidia berbea entzuten danean, euskaldunen burura ainbat gauza datoz, baiña gure idazlan onetan berba onek esan gura dauana gauza oso berezia da, Kofradia esaten jake Aste Santuan eleizbideetan irudiak erabilteko urietan sortzen diran alkar-teai. Zarrak dira, baiña guk agertu nai dogunagaz zer-ikusi gitxi daukee. Kofradia esaten jako arrantzaleak,

jabe ta langilleak batera, osotzen daben alkar-teari. Oneik be antxiñakoak dira, gitxienez amabigarren gizaldikoak, eta ba-dauke guk diñogunaren antza baiña beste gauza bat dira, arrantzaleen mundua ta baserriarena mundu bi diran neurrian.

Guk emen kofradia edo anaidia aitatzen dogunean, gauza bereizi ta bitxi bat aitatzen dogu, Euskalerrian garrantzi handia euki dauana eta gaur galtzen doan erakunde bat.

Eleizako gauzea ala errikoa da kofradia?

Erdi-arogan gauza bi oneik nastauta ebiltzan eta ez da errez kofradia eleizakoa ala errikoa dan jakitea, erantzunik errazena biena dala esatea litzake. Errikoa da Bizkai'ko Batzarretarako autarkia daukalako eta eleizakoa da, baseleiza edo ermita baten edo biren ardurea daukalako, mezak egiten dauzalako eta Eleizbarrutiak noizean bein begiraketa edo inspekzio-ikustaldia egiten daukalako. Eta begiratze au gogorra izaten zan, batez be kontu-liburuai buruz, eta kontuak argi agertzen ez ebazan zaintzaillea (maiordomua) ezkomunikatua be izaten zan iñoz.

Gure egunetarako ondoren bat: Ermitak norenak dira? Auzoarenak? Eleizearenak? Erriarenak? Ez da erreza erantzuna, baiña nik esango neuke baseleiza bera auzoarena, kofradiarena, dala baiña eleizeak esku-bide bat dauko or etxe ori jaun-gurtzarako erabillia beti izan dalako. Kasu batzutan baseleizak izan leitekez eleizearenak be. Oñarrian itaun au dago: Kofradia eleizearen gauzea da ala auzoarena? Baiña or bitartean beste arazo batzuk dagoz gero argiago agertzekoak.

Gaurko onegaz idazki onetan alegiña egingo dogu al dogun neurrian arlo au argitzen, baiña gauza asko dagoz oraindiño billaketa-lana egin barik eta esaten doguzan gauzak be, bat baiña geiago, ez dira ain zurrak izango, billaketa egin ondoren aldatu egin bearko dira, esaterako fogeradunak ez ziranak autarkirik ete euken ala ez. Ba-leiteke lenengo gizaldietan ez eukitea, baiña gero, amaseigarren gizaldi-inguruan orreikana be autarkia zabaldu izatea. Dana dala, esango doguna dana billatzaileen jakingarrien pentzura dago.

FOGERADUNEN TALDEAK

Bizkaia'ren edestia dakarren liburuak irakurten ba'dozuz, laster aurkituko dozu "fogera" berbea. Berba orrek "suetea" edo beko sua daukan etxea esan gura dau. Baiña berez ori izan arren gero beste esangura batzuk gaiñeratu jakoz. Erri baten 60 fogera edo suete

URIZARRETAN

Aspaldian oikoa dan lez, aurten be aratoste inguruan bertso kantuak entzun ziran gure errian.

Oraingoan, Eneperi jatetxean tokatu jakun eta Jon Maia eta Jexux Mari Irazu izan ziran bertsolari, eta trama jartzaile Josu Goikoetxea.

Trama jartzaile dinogu, ze gaia olakoa izan zan. Au da, gaijartzaileak erriko fikzinozko pertsonaiak eta jazokerak asmatzen dauz eta bertsolariak areen papera egin bear dabe.

Zer ote zan motiboa
bazan gure enbidoa.
Tanto askora igoa,
txalo otsekin erantzunikan
emengo bertso tiroa.
Nik ez nekien Bakion bazenik
olako bertso giroa.

Germani urteak kolpeka,
belaxe sasoiz betea,
badu ezkontzeko beta.
Aio esanda alde egin bear,
au izan da gure buelta.
Gaztelugatxe konkistatzera
abittu bear dugu eta.

Gipuzkoatik iesi,
orain itzuli ez kasik,
emen baikera naasi.
Eskerrik asko giroak ez zun
gaur gitxiago merezi.
Berriro zuek nai bitartean:
aio eta ondo bizi.

Alan da ze, arearen inguruan ia aaztutako arazoa birragertu zan eta baita gure inguruko San Migel, San Pelaio, eta San Joaneko ermiten tramearen ingurukoa be.

Esan bear dogu, larogitazak entzule egon ginela eta saio naiko txukunak urten eutsela bertsolarietara. Aor daukuzue, bada, gau aretako amaierako bertsoak.

Orain badakigu zer den
bertan kantatu ondoren.
Entzulea beintzat gailen,
pozikan asko, oso gustora
aurkitu gera gaur emen.
Ea berriro itzultzen garen,
German ezkondu baino leen.

Ori da egi lodia,
bazuen kategoria.
Dena bukatu da ia,
ementxe dago eszenarioa:
inperua eta gloria.
Orain bakoitzak egin dezala
benetako istoria.

UNAI BEITIA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

dira neurri bardiñekoak, sarritan kofradi batek auzo bi edo geiago artzen dauz eta auzo baten barruan kofradi bi izatea be izan leiteke. Eta antzera jazoten da baseleizakaz. Kofradi batek izan leike baseleiza biren ardurea. Dana dala, gauza oneik ez dira izan edestian zeatz erabagiak eta gaur, kofradiak eurak gal-zorian dagozenez, gauzea gaitxagoa da. Billaketa-lan onetan aurre-ra egin-bearra dago.

FOGERABAKOEN ESKUBIDEAK

Fogeradunen jabetzak bere mugak eukazan eta fogerabakoak be curen eskubideak. Begiratu daiguzan al dan neurrian.

Zer zan oillalurra? Enparantzan edo baso-artean egoan lur-zati bat. Onen jabetza alkarteak eukan (kofradiak?) eta lur orretan iñok landarik sartzen banean, landarea berea zan baiña emoten ebazan frutuak guztienak.

"Oilla" itz orrek ainbat gauza dakarskuz burura: Oillarre Galdakano'ko auzoa ez ete da olako zerbait? Ete dauko zer-ikusirik "oillarra" deritxagun abareagaz? Edo Olibares abizena, liburu zarretan "Olibares" agertzen da, ez ete da Olibares'etik sortua, Araba'ko Ullibarri dan antzera?

Baiña goazen arira?

Kofradiarenak ziran baso-arlo ta kortabaso zabaletan, fogeradunak ez ziranak be ba-eukezan curen eskubideak, iñok ukatu ezin leikioezenak.

Orbela batzeko eskubidea: Orbelak abereak zaintzeko onura aundia eukan eta izuzki aundiak artuta joaten ziran gure aurretiakoak basoetara orbela batzera.

Abesti zar batek be ba-diño: "Astelenean orbela batu...".

Gaztaiñak batzeko eskubidea be ba-euken fogerabakoak. Aldi baten Euskalerrian janari egokia ta billatua zan gaztañea, opillak be egiten ziran gai orregaz. Kofradiaren baso zabaletan guztiak euken gaztaiñak batzeko eskubidea.

Abereentzako barrutia: Baso eder eta zabal orreitan auzoko guztien abereak nasai eta zabal ibilli eikezan.

Egurre ekarteko eskubidea: Etxeetan, batez be negu-aldean, egur asko bear izaten zan eta etxeetako emakume naiz gizonetzkoak basorik baso ibilli eta sugarria lepo-gaiñean ebela etxeratzen ziran. Euren eskubidea zan.

Irea batzekoa zan beste eskubide bat. Gai au be egokia zan abereen azpigarri lez erabilteko. Uda-goienean burdikada ederrak ekarten ziran basoetatik etxeetara eta etxe-ondoan metatu egiten zan irea. Amaika abesti eta dantza eder egiten zan ira-batzea zala-ta. Fogeradunak be ekarriko eben, baiña fogerabakoak be ba-eben eskubide ori.

Ikusten dogu ba, jabetzadunen eta jabetzabakoen artean aldeak izan arren, zio asko egoala auzoko guztiak ondo alkartuta bizi izateko.

ONDASUNAK

Kofradiak daukezan edo euki dabezan ondasunai buruz, itaun asko egin geinkez: Fogeradunenak ala auzo guztiarenak ete ziran, ondasun orrein egin-bear bat ete zan euren baseleizak zaintzea, baseleizak eurak kofradiarenak ete ziran eta abar.

Lenengo edesti apur bat agertuko dot, gero arazoa aztertzeke.

España'ko errege batek, 111 Karlos izan zala uste dot, ekonomi-arloko estutasun bat eukan. Txantxetan esaten dodan lez, alabea ezkontzen jakon eta ez eukan alaba orren "dotea" osotzeko beste diru. Errege orrek ames oker bat egin eban: Zergaitik ez kofradien ondasunak saldu eta dirua neuri bialdu daistela eta nik gero urtero mozkiña ordainduko neuskie? Ames au Mendizabal'en "desamortizaniño" legea baiña lenago, urte batzuk lenago, izan zan.

Esan eta egin. Laster agertu zan legea kofradi eta olako erakundeen ondasunak enkantean edo erromatean saltzeko eta dirua Madrid'era bialtzeko. (Lortu ete eban lege onek bearrezkoa zan foru-baimena edo "pase foral"?) Dana dala, ondasunak saldu ziran eta dirua Madrid'era bialdu be bai. Zeanuri'ko kofradien salketa Gernika'n egin zan Muzkiz eritxon eskribau baten aurrean. Zori txarrez Madrid'etik ez da iñoz artu diru orrein mozkiñik gaur arte.

Baiña baserritarrak be ez egozan lo. Zer egin eben? Ba, curen lurra enkantean saldu ziranean, eurak ara joan eta eurak erosi. Arrezkero lur zabal orreik ez ziran kofradiarenak, enkantean erosi ebezenenak baiña. Euren izenak be aurkitu leikez Durango'ko Jabetza-Zerrendan. Geroago lur-zati orreik, geienak saldu egin ebezan eta salneurriaren dirua euren artean banatu. Zerbait geratu zan saldu barik, baseleizaren ondoko etxea ta soloa eta zeozer geiago. Nortzuk izan ziran erosle? Barriro eta banaka eurak? Ori ez dakit baiña gaurko jabeak nortzuk diran ikusita atera leike ori.

Orra or ondasunai buruz gauzak oso-osoan aldatuta, baiña ezin itzi itaun batzuk egin barik: Baseleizea zaintzeko egin-bearra, ondasunai lotuta egoana, noren eskuetara igaro zan? Fogerabakoak eukezan eskubideak, orbelarena, barrutiena, gaztañena, irearena, sugarriena eta abar zertan geratu ziran? Ez ete dagoz txarto eginda eskribauak egindako jabe-agiri barri oneik? Gaur nortzuk dauke baseleizak zaintzeko egin-bearra? Itaun asko eta erantzun gitxi.

Begiratu daigun gaur zelako egoeran dagozan kofradiak eta euren ondasunak. Bana-banan aztertu bearko

dagoz esaten danean, ez da bakarrik beko sua aitatzen: Zergen arazoa dago or. Fogeradunak zergea ordaindu bear izaten eban Euskalerrian eta ordaintze orren ordezkubide batzuk eukazan.

Auzo baten bizi ziranak guztiak ziran fogeradunak edo suetedunak? Ez. Batzuk ziran fogeradunak, jabeak, idalgoak (hijos de algo) eta beste batzuk fogerabakoak.

Nondik eta zergaitik sortu ete zan bereizkuntza au? Lenengo baserritarren artean. Asieran seme bat ezkontzen zanean kortabaso emoten jakon eta baso orren barruan etxea egin eikean. Nik uste dot au fogeradun izango zala. Baiña geroago Lege Zarrak zearo galerazten eban etxaldea zatitzea eta orduan etxeko jauna geratzen zan jabe eta aurtarkidun eta besteak edo urten edo menpeko izan. Dana-dala etxetik urtetan ebenak be ba-euken barrero etorteko eskubidea, ba-euken maian lekua eta gelea. Askok abadetzara edo lekaidetzara joan bear izaten eben, beste asko Gaztelara lanean edo Ameriketara joaten ziran.

Gaiñera, auzo askotan artzaiñak be bizi ziran eta artzaiñak ez eukan etxearen jabetasunik, izakeraz ibiltariak ziran eta euren etxeak teilla bakoak (teillea jabetasunaren ezaugarri da eta munarrien ondoan ipinten da).

Orrelan ba, auzo baten fogeradunak eta fogerabakoak bizi ziran, baiña kofradia fogeradunak osotzen eben.

Fogeradunak ziran ba kofradiaren ondasun guztien jabeak eta ondasun oneik sarritan oso zabalak eta aundiak izaten ziran: Etxeak, eleizak, soloak, basoak eta abar. Basoen artean bereiziki aiatatu bearrekoak dira kortabasoak (erderaz sel). Oneik ardiak edo abereak atsedenean, abarotan, eukiteko tokiak izaten dira. Kortabaso biribilla izaten da: Erdian taketa sartu eta 140 neurkin inguruko kordela luzatu eta bira oso emon. Or barruan geratzen dana da kortabaso. Guztiak ez dira neurri bardiñekoak.

Baseleiza edo ermitearen ondoan sarritan bizileku bat egoten da, esaterako Zeanuri'ko Alzusta'n edo San Lorenzo'n. Etxe orretan bizi zan antxiña baseleizearen ardurea eukan zaintzaillea, sarritan lekaide edo monjea, gero "serorea" eta gero errentariak.

Asiera baten ondasun orrekin truke, fogeradunak baseleizea zaintzeko ardurea eukan, baiña gero agertuko diran arazo batzukaitik, ardura ori itzi egin eben eta alde batetik atizo guztiak eukan baseleizearen ardurea eta bestetik fogeradunak basoen jabetza. Arazoa ez dago garbi-garbi, baiña gero geiago argituko da. Zeozegaitik daukaz Alzusta'ko liburuak alde bi: Aurretik baseleizearen kontuak eta atzeko-aldetik, buruz bera, kofradiarenak; eta zeozegaitik kofradiari dagokiozan orriak kendu egin dira. Entzun dodanez, arazo au bideratua izan zan Intxaurraga'tar Sabin alkate izan zanean, baiña ez dakit zertan geratu ziran.

Irakurleak arin ikusiko dau kofradien arazoak ez dagozela argi eta egia da.

ARDURADUNAK

Kofradia giza-talde bat da eta giza-taldea dagoan lekuan beti bear izaten da erakunde bat eta arduradunak.

Kofradien erakundea oso xumea da, apala, baiña elburua lortzeko oso egokia eta erribidezkoa.

Kofradiak, lenengo, sendiaren buru ziran fogeradunak daukaz. Guztiak auzoaren onari begira arduratuak, guztiak fededun zintzoak, guztiak euren ondasunak ondo zaintzeko gogo bizia daukenak.

Urtean bein egiten dabe fogeradunak curen batzarra, baseleizearen eleizpean eta Martin Deunaren jai-inguruan. An aztertzen dira arazoak, an eskatzen dira urteko kontuak eta an izendatzen dira kofradiaren arduradunak.

Maiordomua zan arduradun bat, eta onen zeregiña basaleizearen arazoak bideratzea zan: Urtean santu bi ospatu (zaindaria ta beste bat, esaterako San Antonio), orretarako abadea ekarri eta oneri ordaindu; mezaostean, etorri diran guztiai arda zuria ta galletak emon, eleizako eralketen kontuak idatzi. Ardura au etxerik etxe, txandaka, urtero aldatzen zan.

Baso-zaiña edo baso alkatea zan kofradiaren jabetzako ziran baso guztiak ondo zaintzeko arduraduna.

Eta zelako artu-emonak eukezan kofradiak Eleiz-Ate edo erriagaz? Gai au ez dago ondo aztertuta, baiña, antza dagoanez, Eleiz-Atearen batzarrera bat bialtzen eben guztien izenean eta onek eroiazan auzoko arazoak, gero, nai izan ezkerro, Gernika'ko batzarrera aurkezteko.

Zeanuri'n batzarra eleizearen ondoan dan illerriko eleizatxuan egiten zan eta alkate bi aukeratzen ebezan. Zergaitik bi?

Antza dagoanez, kofradiak aldi orretan garrantzi aundia eukan Bizkai'ko erakundeen barruan, bai zergak ordaintzeko eta bai legeak egiteko edo erria jaurtzeko.

Beste arazo bat be ba-euken kofradiak: Auzo barruan diran bideak konpontzea eta auzoaren onerako bear ziran beste zeregin asko. Orretarako auzo-lanera egiten eben dei eta guztiak egozan lan ori egitera bear-tuak.

Toki batzutan ezintasunean dagoan bateri, emakume alargun bateri edo ume zurtzai laguntzeko be egiten zan olako deia eta egun guztian lan egin ondoren gabean totoa egiten eben. Apari-iltzi bat, makallau enea orioagaz eta ogia eta ardaa. Eta jan eta edanez, kontuak kontau.

Auzoa eta kofradia, lurraldeari begiratu ezkerro, ez

ZIORTZA (IV): LEKAIDE-ETXEKO TOKIAK ETA IRUDIAK

Ziortza'ko lekaide-etxearen barruan ainbat toki izan dira eta dira. Gaurko lan onetan eleizea itziko dogu urengorako eta beste tokiak banan-banan aita-tuko doguz.

Lekaide-etxearen barruan zelai bat dago, gitxi gorabera lauki itxurakoa, eta lauki orretara sarrera bi dagoz, sortaldetik bat eta sartaldetik bestea.

SORTALDEA

Sortaldekoa zan lenago sarbide nagusia, naizta orain zabalagoa ta egokiagoa izan sartaldekoa.

Sortaldeko ate onek puntu erdiko arkuau dauka goian eta onen gainean Muxika ta Butron Jauntxuen ikurdia.

Ate onetatik sartu ezkerre, ezkerretara abataren antxiñako etxea daukagu. Geroago emen kalonje bat bizi izan zan eta 1.930n. urtea ezkerre, parrokoaren etxea izan da. Etxe au gaur barriztauta dago eta gaurko lekeideen bizilekua da.

Egoalderantza kalonjeen etxeak izandakoak dagoz. Gero emen baserritarrak bizi izan ziran, errentea ordainduz.

SARTALDEA

Beste sarbide bat dago, esan dogun lez, sartaldetik. Emen be arrizko arku bat dago, sortaldekoaren antzekoa eta Muxika-Butron sendien ikurdia gainean dauala.

Ate onetatik sartu ezkerre, ezkerretara, abataren etxe barria egoan eta ormearen kanpoko aldetik, ormeari dautsola, gaisoen etxea. Baiña toki bi oneik 1.954n. urtean suak erre ebazan.

Iparraderantza jarraituz, ibiltegi itxia edo "klastro" a dago. Olako toki asko daukaguz inguruetan. Orainsu barriztu dabe Bermeo'ko Frantziskotarren etxean gotiku-tankerako klastro eder bat. Toki au egokia zan euri egunetan. Askok dira emen euri egunak. Ibillaldiak egiteko eta lekaideen jolas-leku lez artzen zan.

ELEIZEA TA ILLERRIA

Gero eleizea dator, aurrean aterpe eder bat daua, eta gero sakristia. Ormearen kanpotik oraindiño illerria geratzen da. Orainsura arte egin dira emen obiratzeak.

Orrelan eldu gara barriro sortaldeko atera eta ate onen aurrean kurutze eder bat daukagu, kurutze-bide baten azkenengo kurutzea. Arrizkoa da eta ederra. Daukazen irudiak urten-gitxiak edo "bajorrelebeak" dira. Gizaldi onen asierara arte ezkerrean eta eskuman beste kurutze bi egozan, buruko zatia bakoak.

IBILTEGIA

Begiratu dagiogun astitsuago, sartaldetik sartuta ezkerretara dagoala esan dogun ibiltegi itxi edo klastroari.

Lekaide-etxe guztian diran tokien artean au da bat kontuan artu-bearrekoa, garrantzizkoa. Alde batetik eleizea dauka eta bestetik abatetxe barriaren eta Ostatu edo gaiso-etxearen ondakiñak. Ondakiñak kentzeko alegiña egin da baiña obeto kendu ez ba'litzaz.

Ibiltegi onek etxe-mailla bi daukaz. Beia trapezio itxurakoa da, alde bakoitxera lau arku dituala, eta beko maillan age politak daukaz eta geometri-giroko ageburu egokiak puntu-erdiko arkuai eusteko. Bitartetan domiña ederrak agiri dira euren kurutzeakaz, baita ibiltarien oskolak edo kontxak be, beste leku batzutan, esaterako Irusta abataren illobian, agertzen diranen antzekoak.

Ibiltegiaren goiko etxe-maillan bekoen antzeko domiña aundiak dagoz eta arrizko eskudel eder bat. Goiko maillan diran arkuak ez dira puntu-erdikoak beeratuak baiño. Beko arkuakaz batera ikuspegi eder bat sortzen dabe.

Ibiltegi eder au XVI gizaldian egiña da eta bertanbera itzita ainbeste denporan egon zalako, gizaldi onen asieran Aldundiak ber-eraiki egin bear izan eban. Baiña zori txarrez au be erre egin zan alboko tokiakaz batera 1954'an eta barriro ber-eraikia izan zan.

litzakez baseleiza guztien egoerak, eta ori eziña da, idaz-lan onetan beintzat. Mungia'ko kofradien egoerea aztertuko dot, baiña lenago, argibide lez, Morga'ko parrokiari dagoan Janduniz'ko San Juan'en egoerea. Baseleiza au eleizearen ondasun lez artzen zan, baiña Jabe-Zerrendan ez da agertzen, beste baseleizak be agertzen ez diran lez. Neu joaten nintzan baseleiza aretara mezea esaten San Juan egunean eta meza-ostean ardurea eukanak bazkaria emoten euskun. Urte asko ez dirala, arduradun onek baseleizea berarena dala esan eban eta eleizpean ortuariak sartu be bai, entzun dodanez. Arazoa epaitegira eroan eban eta epailariak parrokiari emon eutsan errazoa eta orain argi dago parrokiarena dala baseleiza ori.

Aztertu daigun Mungia'ko baseleizen gaurko egoerea.

Magdalena deunaren baseleiza: Auzokideak alkartuta Eleiz-barrutiagaz artu-emonetara sartu ziran eta ni arduradun nintzanerako ituna eginda egoan, izenpetzeko gertu: Baseleiza, ondoko etxea eta beste ondasunak auzokideen eskuetan geratu dira eta konponketa-lan egokiak egin dabez. Baldintzak oneixek dira: Jaun-gurtzakoa ez dan ekintzaren baterako baseleiza artu nai izan ezker, baimena eskatu eleizeari eta iñoz alkarte ori apurtzen ba'da, dana barriri eleizearen eskuetara biurtuko litzake. Jabeak auzokideak dira eta euren izenean dago Jabetza-Zerrendan. Sendien alkartasun ori legezko biurtu ondoren. Ez dago ain txarto eginda. Urtenbide bat da.

San Anton baseleiza: 1.950n. urtea baiño letxuago, baseleizearen arduradunak bere izenera aldatu eban jabetza eta Jabetza-Zerrendan bere izenean ipiñi. Baseleiza izana an dago baiña ez jako iñori izten ara sartzen be eta auzoan mezea esan bear danean zelaian esaten da karpa baten azpian. Ori egiten dalako be izan dira zemaia eta iztilluak zelaia bera be baseleizeagaz batera galdua dalako. Orain baseleiza barri bat egiteko asmotan diardue, orretarako lenengo lurra erosita. 1950n. urtean arazoa Gotzaindegira eroan zan eta andik baimena emon eban, txarto emonda, baseleiza betiko itxi eta mezea esatea be kentzeko. Kanpaiak eta santuen irudiak parrokiara ekarri ziran. Ori betiko galduta dagoala dirudi.

Santa Marina baseleiza: Antzeko arazoak sortu ziran baseleiza etxe bateri dutsola egoalako emen be eta etxe orretako jabeak eurentzat artu eban baseleiza. Auzokideak baseleiza barria egin dabe eta antxe ospatzen da jai Inazio Deunaren egunean. Orretarako erabiltzen da aurreko zelaia. Ori be galduta dagoala dirudi.

Salvadorearen baseleiza Au Markaida auzoan dago eta oraintsu barriztau dau udalak, parrokia ta auzoa batera dirala. Or Kofradia ba-egoan eta gaur be ba-dago. Oraintsu itaundu dabe or dagoan fundazioa zertan dan. Iñok ez ekian ori, baiña bertako amerikano

batek, nire amamaren nebeak, egin eban fundazio ori 1.905n. urte inguruan eta orra sartu ziran ondasunak, eskola bat sortu zan auzoko umeentzat, baiña dirua urri egoalako edo, irakasleari ez jakon bear dan lez ordaintzen eta bertanbera itzi zan arazoa. Gaur or dagoz fogeradunak eta or dagoz auzokideak zerbait egin-gurean.

Ander Deunaren baseleiza: Au Billela auzoan dago eta ba-daukoz ondasun batzuk. Bailia baseleizea jauskor egoalako, auzokideak konpontzea nai eban eta Eleizbarrutiaren laguntza eskatu eban. Laguntza au ukatu egin zan eta auzokoak baseleiza zarra bota eta barria egin eban. Orain igandeetan mezea be ba-dauke eta ainbat ezkontza ospatzen da bertan. Ez dakik baseleiza ta inguruko ondasunak noren izenean dagozan. Diru-arazoa auzokoen esku dago oso-osoan. Oraindiño jaiak kofradien izena emoten jake.

Martin Deunaren baseleiza: Atxuri auzoan dago eta ondoan dagoan etxe bat eta zazpi baso-zati dauz bereak. Emen ba-dago kofradia eta amasei dirala uste dot fogeradunak. Oraintsu konpondu da, auzoaren, Udal-batzaren eta eleizearen laguntza alkartuta. Ez da gauza erreza baseleizara sartzea, sarrera bakarra txakur batek zaintzen daualako. Eta amasei fogeradunen esku-bideetatik zazpi arduradunak beretzat erosita daukoz eta lurraren zergea be onek ordaintzen dau. Jabetza-agiririk ez dauko iñok. Liburu zarrak erre egin ebazan arduradunak.

Lorentzo Deunaren baseleiza: Emen be kofradia ba-egoan baiña oraintsu inguruan dagoan urigintza-bazkun batek erosi dauz lurak. Ez dago beste argibiderik eta lurren jabetza-agiria egin danean ez da besterik esaten auxe baiño: "Lur-zati onen barruan baseleiza bat dago".

Argi ikusten da ba, zelako nastea dagon arlo onetan eta zelan doazen erritarrak lur-zatien jabe egiten. Arazo au zabala da Euskalerrri osoan eta urtenbide bat emon bear jakola uste dot, legea eskuetan dala.

Urtenbidea Magdalena'ren baseleizan egin dana izan leitekela uste dot. Beste urtenbide bat izan leiteke, kofradiak legezko biurtu jabetza-zerrendan euren jabetza-esku-bidea agertzeko eta euren egin-bearrak argi ezarten dirala, batez be baseleizeari begira.

Ez ete da agertuko edesti-zalaren bat arazo au argitzeko? Errietan onuragarriak izango litzakez orretarako sortu leikezan Sendi-Alkarteak, orrelan errian erritarrak kideko izan daitezkan. Ez da erreza konponketa au, baiña bai bearezkoa.

Uriarte'tar Juan M.^a Gotzainiak parroki onetara artzain-ikustaldia egin ebanean, baseleizen arazoa argitzeko ta bideratzeko agindua emon eban, 1992n. urte-inguruan.

GALDAKAO BERTSOLARI

Galdakao erriko jentearen artean be izan dira eta badira ixentaziño andiko bertsolariek.

Eustakio Larrabeiti "Eulea" Trobika baserrian bizi zan.

Juan Zugazaga, "Jon". Eustakioren lobeia, Eustakio beren aitite zan da.

Alonso "Amerikanue", Uraskan bizi zan.

Letona (Bedia errian, Lexarretakoa), baña Usansolon bizi zan.

Jose Mariano Barrenetxea, Bengoetxe auzoan bizi zan.

Antonio Goikoetxe "Motroko", Aspurukoa.

Anastasio Larrea eta Karlos Asua, Urtebieta baserrikoak.

Bittor Askagorta "Trokolaterue", Uxargoitkoa. Bere bertsoen bertso-papelak egozan.

Zugutzuko Dinamita fabriken ere Galdakaoko beste bertsolari bat bizi zan, baña ortik aurrerakorik ez dakit.

Nire aite Jose Mariano eta, "Motxoko" zarri ikusten nebazan bertso ekiñaldietan Bengoetxe auzuneko Lekuen tabernan ta bein ere bi oneik eta Zaratamo erriko baita Artetako beste bat, laurak bertso ekiñaldian pareu ziran au neronek ikusitakoa da ta.

Bertso aldiren bat, Alejo Gurtubai albokariaren barberri edo ullemostegi, artan, Zugutzu auzoan ere izan da: baita Merkadilloko etxe zarrean eta Usansoloko taberna zarrean ere. Elexalde auzuneko jaietan bein baño zariago, gerra aurrean, Andra Mari jaietan eta landaren erdian pareute, Eustakio Euleak eta Enbeita "Urretxindorak" etxeetan ekiñaldiek eiteuriezana, Enbeita orrexetarako etorten zan da.

Gaur ere Galdakaon ezagutzen dodaz bertsolari aldeko naiko onak. Bata Dima aldetik etorrita 1917 jaioko Faustino Etxebarria tarra, eta zorionez gazteen artean eskolaren zaletasuna ere bada.

JOSE MARIANO BARRENETXEA

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

9

BILBAO
I-01111
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.^a 50.000 pezeta

2.^a 40.000 pezeta.

3.^a 30.000 pezeta.

4.^a 20.000 pezeta.

5.^a 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

BIZKAIA

ILLERRIA

Illobi eder baten jabe da monastegi au. Ibiltokiaren erdian dago arrizko illobi eder au. Lenago uraren bide izateko erabillia izan da, azpikoz gaiñera ipiñita urari bidea emoten eutsola. Olako okerkeriak egin dira. Esaterako Estibaliz'ko Ponte ederra abereen aska biurtu eben.

Illobi eder au noizkoa dan argitzeko asko idatzi da, baiña oraindiño ez da argitu arazoa.

Alboetan ertza lerro biribildua da eta kanpoko apaingarriak neurritzi edo jeometri-girokoak, grekak eta olakoak. Gaiñean kurutze bat dauka leio antzeko bategaz ta perra-itxurako arkuak, makobil baten barruan sei erpindun izarra dauala.

Beste illobi bat be ba-dago Ziortza'tik eroana, Bilbao'n dan Bizkai'ko Edesti-Museoan. Au Vazquez'tar Pedro'k aurkitu eban Ziortza'tik Bolibar'era bidean. Gaiñean lau zatitako estalkia dauka eta alboetan neurritzi-giroko irudiak eta greziatarren itxurako kurutzeak eta lerro okertuak ugari.

Illobi bi onei buruz eztabaida aundiak izan dira, noizkoak eta zein tankeratakoak diran argitzeko. Batzuk bizigotoen tankerakoak dirala, eta ba-dira Bizantzio edo mudejar tankerakoak dirala esan dabena be. Guk esan geinke Ziortza sortu zan aldi ingurukoak izan daitekezala, X edo XI gizaldikoak.

Dana dala, bigarren illobi au Ziortza'ra ekarri bear leukee, emengoan dan ezkerro.

ABERATS JATUNAREN ARRI LANDUA

Ziortza'n dan beste erti-lan eder bat Aberats jatunarena deritxon arri iruditua da. Au gaiso-etxe edo ostate zarraren aurreko orman egoan sartuta, ageburu baten gaiñean. Gernika'ko Batzar-Etxean erakutsi dabe eta 1994n. urtean ekarri eben.

Alderdi baten urten-gitxiko irudia dauka (bajorre-liebea) 1.532n. urtekoa: Aberats jatunaren ipuiñetik artuta jazokizun bi agertzen dauz: Aberatsa ta emaztea jatordu aundi baten eta Lazaro txiroa txakurrak zauriak mizkatzen dautsozala. Beste notin bi agiri dira barrenean, baiña ez dakigu nortzuk diran. Aberatsaren morroi bi izan daitekez. Goiko ezker-aldean aberatsaren eta Lazaro'ren eriotzea agertzen da. Aberatsa ipernura daroa Txerrenak eta Lazaro zerura aingeruak.

Bizkai'ko Oroitexeen Batzordearen Agiri Nagusian beste ulerkera bat agertzen da irudi oneri begira: Gaiso-etxea egin eben senar-emazteak ei dira eta eurakandik igesi doaz txerrenak.

Gogoan izan bear ko da onen antzeko gaiso-etxeai "lazareto" esaten eutsela eta errez izan daitekela Lazaro txiroaren irudia.

Erti lana ez da ain zeatza eta esan lei erromanikutankerakoa dala, baiña aurka datorkuz norkien jaziak. Oneik XVI gizaldikoak dira.

Arlosa onek idazki bat daroa inguruan eta auxe diño lateraz: "Zorionekoa txiroa ta ezeukia kontuan artzen dauzana. Egun txarrean Jaunak askatu egingo dau. MDXXXII urtea.

Irudi au be Ziortza'ra ekarri da, emengo dan ezkerro.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

+

BILBAO ETA ARRUZA'TAR JON ERRAMON

Aitaren etxera joan jaku "ZER"en zenbaki au irarkolan egoala.

Gure samintasun-agurra Olazar eta Murugaga'tar bere alargunari.

Urrengo "ZER"en agertuko dogu bere bizitza. Oraingoz azaleko argazkia ornen lez.

EUSKERAZALEAK

IRU GAUZA DAGOZ ESKUTATU-EZIÑAK: MAITASUNA, KEEA ETA GANBELU-GAIÑEAN DOAN GIZONA

Arabiarren atsotitza

DONEJAKUE-BIDEAK

Donejakue-bide bat dago ospetsua, ospetsuena, añañamendi iru-bat lekutatik igaro eta Gares (Puente La Reina'n) bat egiten dauana eta gero santutegi ta gaiso-etzexz beterik itzi daben bidea osotzeko. Aragoi, Napa-rrua, Errioxa, Burgos, Leon eta Galizia igaro eta Konpostela'ra eltzeko. Oneri Frantzetarren bidea esaten jako eta, geien ibillia izan arren, ez da bakarra. Bizkaia'ri dagokionez Gipuzkoa'ko itxas-ertzetik datorku bat eta Mendar'o'n iru zati egiten da gure Bizkai'ra sartzeko: Bat Markiñatik dator, bigarrena Ermutik eta irugarrena Otxandio'tik Irurak barranto bat egiten dabe Bilbao'n gero Portugalete'tik Kantabria, Asturias eta Galizia'ra sartzeko edo mesetara igoteko, batzuk Orduña'tik eta beste batzuk Balmaseda'tik an goian bide nagusia artzera.


Baiña beste batzuk naiago eben itxas-bidea, eurak itxas-ondoan bizi ziralako, esaterako inglesak, irlandarrak eta eskandinabiarrak. Geienak bertara Galizia'ko portuetara sartzen ziran baiña ez gitxi Bizkai'koetara be, geienak Bermeo'kora.

L— MARKIÑA'KO BIDEA:

Arnoate'tik sartzen ziran Artibai ingurura.

1510n.urtean egindako Jemein'ko parrokia ikusten eben. Artibai'ko uren aurka gora ta gora, Bolibar'era eltzen ziran eta andik Ziortza'ra. Emen X gizaldia ezker'o ba'eukenez eleizatxu bat eta 1400n urtean Kalagurriko gotzain zan Mena'ko Gonzalo'k "kolegiata" bat sortu eban eta gotiku-tankerako eleiza ederra egin zan. Barruan ba-eukenez zer-ikusirik naikoa erromesak esaterako Aiala'ko Juan'en irudetegi ederra, Irusta abataren illobia. Eta lekaide-etxearen ondoan erromesak sarritan bear izaten eben gaiso-etxe bat egoan.

Ortik Arbazegi'ra joaten ziran eta an bide-ondoan eukenez Donejakue'ren baseleiza bat. X gizaldian be an agoan antzeko baseleizaren bat. Eta emendik Gernika'ra. Gernika'tik Gerekiz-gaiñera igoten eben, emendik Morga'ko Mekaur'era eta gero Aretxabalagan'etik Larrabetzu'ra. Emengo eleizan otoi egiten eben arrizko Andra Mari'ren aurrean. Goiko-eleizan XI gizaldiko torrea dago eta eleizea be gizaldi orretakoa da. Oraintsu alboko ormetan agertu diran irudi ikusgarrietan erreaz aurkitu leiz Donejakue bidearen ezaugarriak. Erromesen bide-ertzean kurutze eder bat dago. Emendik Lezama'ra joango ziran gero Artxanda'tik Begoña'ra sartzeko. Begoña'n Bizkai'ko Zaindaria ren Irudia eukenez, XIII gizaldikoa. Ortik Bilbao'ra, lenengo, orduan baseleiza zan Nikola



Donejakue-bideak Bizkaia'n.

ODOLAREN MINTEGIA ZORNOTZAN

"Mintegi'tar Jose Ramon'en il-otoizketan niri gertatukoa".

Neure bizi guztian ezagutu neban gizon ona ta Euskal Abertzale oso-au, Jose Ramon.

Artu-emon aundia euki gendun euren denda dala-ta, neure bizitzako arlo aundi baten beintzat, beti ezagun ta adizkidetasun aundikoak izanda. Azken denboratan geiago, neure zuiñaren osabia izan zalako.

Erriko lagun-talde asko batu giñan Eleizkizun ortan, gure otoitzekin laguntzeko. Eleiza beterik zegoen.

Gorputzaren sarrera abestuz artuta eta abadeak Meza Santuaren Elizkizunak Euskeraz asita, lekaide karmeldarra Mezako idazkia erderaz irakurten asi zan. Neuretzat, arpiko aundi bat artutako bezela geratu jatan. Eneban ulertzen, Jose Ramon Euskaldunari, otoitza eta azken agurra erderaz eginekoa; eta nire gogoan itaun bakarra agertu jatan: "baiña zertan gabiltz?" Enitzen izan gai onartzeko eta Eleizatik urten neban emaztea bakarrik itzita.

Eleizatik urtetan noala, neure gogoa zalantzan asi zan: "ondo?, txarto?". Baiña azken baten eritzi au artu neban: "Geldi egon barik, baten batek salatu egin bear dau egoera au eta oraingoan neuk izan bear dot".

Euskalerrian, arazo geiegi daukaguz gure nortasun gaixoa sendatzeko, Euskaldun benetakoak gariela ikusi dagian inguratzen dauskun auzokoak, eurak-be alegindu daitezana gure askatasunari baietza emon dagian, gu, erdi-purdiko jokuan ibiltzeko.

Gure utzieziñezko Elizkizunak, beti izan dira one-neitako bideak Euskaraz bizitzeko, ondo entzunaz eta ikasiaz, Euskalerrian gure bizitza dalako bete egin bear doguna gogoz. Orregaitik azalduko dizuet, nola ulertzen dodazan gure bear-bearrezko eginkizunetan, bear diran arauak.

* Nortasuna da izadi onetako askatasuna lortu leikena gai-gizaren bizi-bidean elementu edo egoera bakarra, bera dalako arduradun bakarra edo jabetasun bakarra daukana arlo orretan. Eta ez da edozelako jabetasuna, JAINKOAK emon dauskulako bakotzari agindu ori; giza-gai onen bearrezko neurriak, nai-ta nai-ez arduradunak izan da zaintzeko.

* Bestela zer gertatu leike? Gaur bertan gertatzen dana? "urdukeria, naaspiltasuna edo konpondu eziña gizartean". Batzuk, nortasunik gabe gura dabelako giza-gai ontako arazoak konpontzea. Nola ulertu gauza ori!! Erreza orduan aitzea, berezitasunezko nortasunak dirala arduradun bakarrak. Kontuan euki bear-ba, zer ekarten dauskun nortasun gabeko egoal-

diak. Eta ori da gure ETXE NAGUSIAN bai TXIKERREAN ere gertatzen jakuna: "Nortasunean, gaixoak garela".

* Badagoz gaur egun, aitu ezinezko gauzak edo eritziak, Euskal-Nortasunari kalte aundiak egiten dautseezenak: gure KRISTAU erlijioan adibidez. Apaiz, lekaide/lekaime Euskal Abertzaleak ez diranak, edo baleiteke menperatzail-abertzaletasunezko jokuan sartuta dagozanak, eta orregaitik berezitasunaren aurka jokutzen dabenak: "Kristautasunezko bidetik, danok bardin izanda jokatu bear dogula", esaten dabena.

Ori baleiteke izan, Nortasun guztiak ados egonda baietza emoten dauanean. Baiña zelan aitu, JAINKO AITA - GUZTIZ ALDUNA alboratuta itzi ezkeror? KRISTO JAINKOA izanda, JAINKO AITA da bizitza emoten dauskuna: "Zuri, Beltz, Ori, Kobre-antzeko zertzelada margoakin; bai Euskaldun, Keltiar, Aleman, Irlandar, Katalan'dar, Gaztela'tar, Sabino eta abar, jaiotzen garan zertzeladarekin. Orduan, zelan izango gara Kristauak, Euskaldun eta abar izan baiño lenago?

Argi dago, leenengoa Nortasuna dala, KRISTO-JAINKO ereduaren bidetik JAINKO AITAREN'gana igoteko Europa'ko mendebal ontan; bai pozgarria izango zana ere, Mundu guztian izan balitz egoera bakar ori; Ludi onen gizarentzako bear-bearrezkoa dalako, danok (Zuri, Beltz, Ori eta abar) oitura baten egon ezkeror, obeto ulertu gendukelako, ze neurri emon bearrezko eginkizunari Ekanduan, Etikan edo oiturazko arloan.

Ardurazko baimen ori, ikusten dogun-lez, ezin da lortu espata, bonba, atomozko lerkaiekin eta abar; ez eta gutxiago ere Nortasunik gabe. Nortasun-berezitasunezkoa dalako Jabe eta Arduradun bakarra egoera ori lortzeko.

JAINKO-zale edo Kristauak dira olan jokutzen dabenak? Nik, benetan uste dot, sasi-jainko kaizarzale edo menperatzaileen jokuan sartuta dagozanak dirala, gauza orreik edo eritziak gure artean sartzen dabezanak. Euskal izaera desagertu daiten?, bestela ezin aitu.

Orregaitik, Nortasunaren ardurazkoa da, eritzi okeroiek salatzea, kalte aundiak egiten dabezelako gure osasunezko bidean NORTASUNAREN ASKATASUNA IRABAZTEKO. ETA ORI!!

ARIMAREN ASKATASUNA! !

ATUTXA'TAR PAUL

NAPARROA

Deuna'ren eleizara. Bilbao'n geratzen gara beste bide bat azaltzeko.

II.– ERMUA TA OTXANDIO'KO BIDEA

Bide au Gipuzkoa'tik etorren eta arresi ona eukan Ermu'ra sartzen zan. Emen Barroko -tankerako iruditegi eder bat ikusi eikeen, Donejakue mauroen iltzaillea. Gero Berriz'tik Abadeño'ra, Torkatz deunaren eleizara. Ortik Durango'ra: mendi zorrotz ederrak, gaiso-etxe aundia, Mexiko'ko Gotzain izandako Frai Juan de Zumarraga, eleizpe aundia daukan Uribarri'ko Ama'ren eleizea ta irudia, Bizkaia'n zarrena dan Tabira'ko eleizea, Santa Ana'ko ate-ederra, eta torre ospetsuak: Agirrebengoa, Ampuero, Lariz, Ollade, Zabala. Eta da amaitzeko, erromesentzat Kurutze Ederra, XV gizaldikoa.

Eta Durango'tik Amorebieta'ra: Gotiku tankerako eleiza ederra. Eta ortik Galdakano'ra. Emen Andra Maria'ren irudia, erromaniko tankerakoa, eta eleiza ederra.

Gipuzkoa'tik zuzenean beste bide bat Otxandio'ra sartzen zan eta emendik Zeanuri'ra. Emen ba-euken Donejakue'ren eleiza eder bat Ipiñaburu'n. Emendik Areatza ta Arteaga'ra. Erri onetan ostatua ta gaiso-etxea eukezan. Gero Arantzazu ta Igorre'tik Lemona'ra emen Ermu'tik etorren bideagaz bat egiteko.

III.– BILBAO

Atxuri'tik sartzen ziran Bilbao'ra zubi-ondoan egoan San Anton'era eltzeko. Uri onetako bigarren parrokia da au. 1433n.urtean egiña Gaur Lan-Ikastegia dagon lekuan gaiso-etxea egoan eta ondoan San Juan Parrokia ta illerria. Gero aldatu zan San Juan orain dagon lekura. Erromatarren aldikoa zan bide au igarota, zazpi kaleetara sartzen ziran eta emen Santiago'ren eleiza ederrera. Oraintsu barriztatu dabe egokiro. Antxiña ermita txiki bat zan.

IV.– KAIK

Erdi-Aroan Bermeo'ko kaia zan nagusi Bizkaia'n eta emendik sartzen ziran erromesik geieneak, Bermeo'tik bide bi egozan jarraitzeko, bata Bakio'ko San Pelaio'tik, (Arresi-ondoan ba-dagoz zidurriak) emen gaiso-etxea egoan, eta gero Zumetxa'tik Mungia'ko. Santa Marine ra, emen Kepa Deuna'ren eleizea, 1150n. urtean egiña, Billela'tarren torre-etxea, gero Laukariz'ko Santiago eta Derio'tik Bilbao'ra. Ber-

meo'tik urteten eban beste bidea, Mundaka'ra joian, gero Busturi'ra, Murueta ta Foru'ra eta Gernika'ra: XIV gizaldiko eleiza ederra, Batzar-etxea. Emen bat egiten eban Markiña'tik etorren bideagaz eta Aretxaba-la'ganetik Larrabetzu ta Lezama'tik, Artxanda ta Begoña igaro eta Kristo ta Sendeja kaleetatik, San Nikolas igaro eta Santiago'ra sartzen ziran.

Garrantzi gitxiago ko kaiak ziran Bakio, Algorta, Portugalete ta Bilbao.

V.– BILBAO'TIK KANTABRIA'RA

Leorrez naiz itxasoz etozanak, Bilbao'n alkartzen ziran. Urteteko batzuk artzen eban bidea au zan: Santiago, San Frantzisko, Olabeaga, Zorrotza, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Trapagaran, Zierbena. Eta Kantabria'n Onton. Gero Obiedo, Lugo, Koruña.

VI.– GAZTELA'RA

Beste bide bat Bilbao'tik urten eta Basauri'tik Arrigorriaga'ra joian eta emendik Ugao, Arrankudiaga, Luiando ta Amurrio'tik Orduña'ra. Atxaren gaiñean iturri bat egoan eta ondoan gaiso-etxe bat. Bidea ortik Pankorbo'ra eta an aurkitzen eban Donejakue-bide nagusia.

Gaztela'ra sartzeko ba-egoan beste bide bat be: Basurtu'tik Kastrejana'ra eta gero Alonsotegi, La Kuarda, Sodupe ta Gueñes'era eta gero Zalla'tik Balmaseda'ra. Au eban Bizkai'ko azken-erria eta Mena ibarra igaro ondoren Villarcayo'tik Bibar del Zid'era eta emen inguruan artzen eban Donejakue Bide Nagusia.

AMAITZEKO

Bizkai'ra kanpotik etorten ziran erromesak, baiña bertan be sartzen zan jentea ekintza orretara, Konpostela'n beti egoten zan autor-entzule bat euskerea ekiana, emengoen autortzak entzuteko. Emendik joiazan bideen ezaugarri doguz erromaniku -tankerako ainbat eleiza, bertokoak egiñak, eta orrek diñosku emen ba-egoala Donejakue-Bidearen zaletasuna. Baiña jokera onen edestia oraindiño idatzi barik daukagu. Agertuko al da ainbat lasterren.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

CLAUDIO RANIERI ETA LUIS FERNANDEZBAKION

Jakingo dozuen tez, joan dan jorrailean Bakion izan dira futboleko goi mailako entrenatzaile bi: Claudio Ranieri, aurtan Athletic de Madrid taldean ibilitakoa, eta danok ezagututen dogun Luis Fernández, atan be. Etorrera ori aprobetxatuz, itaun batzuk egin geuntsezan ZEReko *paparazziok* eta aor dozuez erantzunak:

CLAUDIO RANIERI

Zer: Zer deritxozu Bakiori zeure leenengo ikus-taldi onetan?

CR: Oso ondo, oso ondo. Izadia itzel dago-eta. Bai mendiak, bai zugatzak eta bai aretzea be oso politak dira. Ganera, iru egun eguzkitsu euki doguz eta gogoko-gogoko izan dot dana.

ZER: Txastatu ete dozu txakolinik?

CR: Bai, gogoko izan dot. Ez naz edale on-ona baina gustatu jat. Usain ona dauka eta oso ardao berezia da, baina on-ona.

ZER: Entrenatzailearen bizitza begitanduten jakun besteko bakartia da, ala?

CR: Bai, beti da bakartia, ze entrenatzailea pertsona bakarra da eta gure bizitza alango izaten da. Irabazten badau, emoten dau jende pilo daua alboa. Galduten dau eta desagertu egiten dira, eta, orduan, bakarrik lotuten da beraren mutlakaz. Orduan aaleginduten da norbera gauzak obeto egiten, taldea aalik eta goragoen eroaten. Tituluak irabazteko ordainduten deustoe-ta norberari. Azkenean, ori da gauzarik garrantzitsuena.

ZER: Badaukazu leku bereziren bat une latzetan babesteko?

CR: Neure senikde artean, jakina. Neure senideakaz nagoanean, eurek emoten deustezalako berotasuna, oreka, indarra, arnasca aurrera egiteko.

ZER: Sentidu izan zara sarritan bakarrik?

CR: Zorionez, ideiak argi daukazan gizona naz. Badakit gaur lortuten dodana biar ilda egon leitekena eta bear andia egin bear dana zeozer lortuteko. Orduan, badakit bizitza bulpil baten modukoa dana: une onak eta txarrak dagoz. Ni beti aaleginduten naz egunean egoten, beti mugituten, biar zer obetu leiteken pentsetan.

ZER: Zelan deskribatuko zeunke aurtan Athletic de Madrid-ek bizi izan dauan egoerea?

CR: Guztiz barda. Ez neban inoz olango egoerarik bizi. Eta esan bear dot, nire futbolari sasoiak Ziziliako Mafiak leendakaria erail euskula. Valentzian nengoanean, leendakariak dimitidu égin bear izan eban. Alan da ze, gauza asko bizi izan dodaz bai Italian eta bai Spainian. Baina Gil kendu ebenean, kluba buru barik lotu zan eta ori itzela izan zan, ez nigaitik, ze entrenatzaileok badakigu gure burua bakarrik konponduten, jokalariaikitik baino. Jokalariek ez ekien zer egin eta euren ordezkariak beste klub batera joateko esaten ibili ziran, eta guzti ori. Gaur eguneko futboleak mentalizazioak oso garrantzitsuak dira. Eta zer jazoten zan? Bada, orretaz berba egin bearrean beste arazo aretaz egiten zala berba. An bizi izan dodana negargarria izan da. Pozik nago orain Gil atzera etorri dalako. Ez dakit kluba aurrera atarako dauan baina, ori miraria izango litzateke eta.


ZER: Izan da au zure kirol bizitzako urterik txarrerena?

CR: Ez, ez, beti dagoz une onak eta txarrak. Ez da txarreña izan, ez, entrenetan asi nintzan leenengo urte bietan neu joan nintzan kanpora leenengo denboraldian, taldea taulan leenengo lekuan itzita. Neu joan nintzan, ze ez nentorren leendakariagaz bat eta Gabonak baino leenago joan egin nintzan. Bigarren urte atan bota egin ninduen, arazo andiakaz asi nintzalako. Orduan, gauza guzti areek gogortu egin ninduen. Badakit urte baten jaun ta jaubea izan neintekena, eta bestean astoa. Orregaitik esaten dot garaipena eta galtzea guzurti bi dirala.


ZER: Zer deritxozu Espainiako Ligeari?

CR: Ona, ona, apur bat arraroa, baina ona. Uste dot orain urce batzuk Italian jazo zana jazoten dala orain Esapiniako Ligan. Au da, leen Italian Juventus, Milan

EUSKALDUN BARRIENTZAT





Tximiñoa, pozik dago ta ez da batera arrigarria, atsegin jakon zerbait aurkitu bai dau, ze ete daun, jakiteko margoztu, 1-Oriz, 2-gorritz, 3-baltzez, 4-larrozaz, 5-orlegiz, 6-laranjaz.




Lauki onetan marrazki batzuk daukazuz; banatu iru marrazkaz 6 zati egiten, eta zati bakoitzean 3 marrazki ezberdiñak itzi bear dozuz.

0-Q`11-1 :euadiezv



Aurkitu gizon onen atzeko-aldea!



Izar bat dago izkutua, aurkitu!

BERBETAN

eta Inter baino ez ziran ligea irabazteko gauza eta orain zazpi talde inguru dagoz ori lortuteko aukerea daukenak. Orain Espainiako Ligan antzeko zeozer jazoten da, Deportivo dago or aurrean eta ori beti da ona alkarleia andiagotuteko.

ZER: Espainiako Ligako talde andien artean kokatuko zeunke Athletic?

CR: Jakina, baietz. Luisek bear andia egin dau. Atinen. gauzak ez joakoz ain ondo. Baina or goian imini bear da eta azpimarratu bear da, bertoko jendea haino ez dagoala. Ori meritu andia da. Zorionak Luis?. esan bear da.

ZER: Tituluren bat irabazteko gauza ikusten dozu Athletic?

CR: Ori dagozan jokalarien araberakoa da. Une baten jokarlari onak badagoz taldean eta. aldi beratan, entrenatzaile ona badauke, talde orrek irabazi egingo dau. Baina jokarlari on barik entrenatzaile batek ezin dau miraririk egin.

ZER: Gustatuko litzakizu Athletic entrenatzea?

CR: Jakina. Zergaitik ez? Erromantizismoagaitik. Norberaren erriko koloreak norbera defendiduten dagoala esateak emoten dauan indarragaitik, guztiagaitik.

LUIS FERNÁNDEZ

ZER: Itsasoari begira ikusi zaitut leen. Leku egokia da momentu latzetan babesteko?

LF: Jazoten dana da, ni itsaso ondoan jaioa nazala, Tarifan. eta Tarifak itsaso bi daukaz: Atlantikoa eta Mediterraneo. Alan da ze. itsasoa zeozer da niretzat Itsasoari begiratzeak norbera laxutu egiten dau -eta.

ZER: Athletic iztea erabagi zenduanetik tristezia igarten jatzu. Min egiten deustsu orrean joan bearrizateak?

LF: Jakina, min egiten deustana. Nik bosgarren urtean iztea neban elburu eta aldi ori amaitu barik ez neban joan gura. Baina leendakariagaz berba egin eta gero, erabagia artuteko unerik egokiena zana ikusi genduan. Betilun nago, oso biozbera nazalako. Ez nazalako mertzenario lakoa, eta jendeak pentsetan dauanak arduratu egiten naualako. Nireganako eritxia aldatu dabeneke mindu egin nabe eta nik, barriz, ez dot euren-ganakoa aldatu.

ZER: Zelan dago zure sendia? Kostatu egingo jake, batez be, zure seme-alabei erri au iztea?

LF: Gure sendia ona etorri ostean, emaztea ez zan ondo-ondo onetara egiten eta, gaur egun, ondo konponduten da berton. Seme-alabek ondo be ondo bertokotu dira. Athletic-zaleak dodaz, emaztea be bai. San Mames-era joaten dira eta nik uste dot emen bizitzeak ondo egin deustela. Ganera, emazteak beti aitatu izan dauz emengo bizi kalitatea eta jendearen izakera ona. Erri onetaz esaten dana ez da, gero. berton bizi ostean, esan leiteken gauza bardina. Ondo bizi da berton eta lurralde ona da bear egin eta gauzak ondo egiten aaleginduteko.

ZER: Zelan deskribatuko zeunke San Mames eta beraren zalegoa?

LF: Tira ba, ez da kanpoko zalegoen modukoa: zaratatsua edo bertan bakarrik egoten dana. Sentimenduan datza ezbardintasuna. Nik San Mames-en gau andi asko bizi izan dodaz, Zaragozarena, barbarako. Zalegoa andia da Turin-era edo Birmingham-era doatzunean. Taldeak laguntza bear dauan partiduetan emoten dauan, eta asko ulertuten duan zalegoa da San Mames-ekoa, jakin dakiana. Zelan definituko neukela? Bada, besteetatik ezbardina dan zalegoa, noz lagundu eta noz laxutu bear dan dakiana.

ZER: Esan dozu inoz Athletic-eko bazkide izan gura dozula. Badago zure gurarien artean noz edo noz zure semeetarikoren batek taldean olgetea?

LF: Bada, aal badau, Romanek, txikiak. Futbolean olgetan dau. Profesionala izan eta Athletic-en olgetako aukerarik baleuka, kontuan artu bearko leukee lau urtean beeko mailetan olgatu izan dauala, eta onartu egingo leukee, bearbada.


Bazkide izateko eskatu dot baina errenkadan itxarongo dot beste guztien moduan. Baina, bazkide izateko gurari orrek eroango nau Europa guztian esatera Espainiako Ligan Athletic deritxon kluba dagoala, bera ezagutzeak merezi dauala, filosofia berezidun klub orren bazkide izatea oso gauza polita dala.

ZER: Athletic-entzat gurari bat?

LF: Beste eun urtez bizi daitela eta tituluak irabzi daizala.

ZER: Eskerrik asko biori.


EGOIZ GARAI



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATOAZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa